

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

#### **8/2019 Foru Agindua, urtarrilaren 16koa, baimentzen duena Inmaculada Galerón Iglesiasen behin-behineko izendapena, Dulantziko Udaleko idazkari lanpostua bete dezan**

8/2019 Foru Agindua, urtarrilaren 16koa, baimentzen duena Inmaculada Galerón Iglesiasen behin-behineko izendapena, Dulantziko Udaleko idazkari lanpostua bete dezan.

Dulantziko Udalak atal honi jakinarazi dio aldi baterako izendapen baten beharra duela, Vanessa Domínguez Casal udaleko idazkari-kontuhartzailea oporretan ordezkatzeko.

Horregatik, proposatu du udal horretako funtzionario Inmaculada Galerón Iglesiasen behin-behineko izendapena egitea.

128/2018 Errege Dekretuaren 52.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik (128/2018 Errege Dekretua, martxoaren 16koa, zeinaren bidez arautzen baita toki administrazioeko funtzionario estatu osorako gaikuntzadunen araubide juridikoa).

Kontuan hartu da Toki administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko Legeak (27/2013 Legea, abenduaren 27koa) 25. artikuluan xedatutakoa —Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legea (7/1985 Legea, apirilaren 2koa) aldatzen du 27/2013 lege horrek, 92.bis artikulua berria sartuta—, non finkatzen den toki korporazioetan aldi baterako halabeharrezko langileak izendatzeko aginpidetza eremua.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskuduntzen ondorioz (52/1992 Foru Araua, Arabako Foru aldundiaren antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzkoa), eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Inmaculada Galerón Iglesias Dulantziko Udaleko aldi baterako idazkari izendatzea, zeregin horretan jardun dezan 2018ko abenduaren 26tik 28ra bitartean (biak barne), titularrak ez dagoen bitartean.

Bigarrena. Izendapenak aurreko apartatuan adierazitako epean baino ez du izango indarra.

Hirugarrena. Foru Agindu hau jakinaraztea interesatuari, Dulantziko Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioarekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argiratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 16a

*Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua*  
**MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*  
**IÑAKI GUILLERNA SAENZ**